

URA GUZTION BIZI ITURRI

Azaroak 14, larunbata: Erreka Eguna

Ura natur baliabideari lotutako ekosistema garrantzitsu bat ezagutzeko asmoz, Ursaltoko erreka hurbilduko gara. Bertan, herritarrak gure herriko erreka egoera onean mantentzearen garrantziaz jabetzeko azalpen batzuk eman eta zenbait ekintza antolatuko ditugu.

Amaitutakoan, herri gunera bueltatuko gara eta Kultur Aretoan Uraren Ametsa izeneko pelikula ikusteko parada izango dute parte hartzaileek.

HITZORDUA: goizeko 10etan, herriko plazan.

EKINTZAREN IRAUPENA: erreka egoeraren azalpena eta garbiketa (2 ordu). Filma 12:30etan proiektatuko da.

Azaroak 17, asteartea: Ura zentzuz erabili

Uraren zikloak Adunan egiten duen ibilbidea aztertu eta urari lotutako herriko proiektu eta azpiegituren inguruko azalpenak emateko hitzaldia. Ondoren, ura modu arduratsuan erabiltzeko aholkuak ezagutzeko aukera izango dute bertaratutakoek.

HITZORDUA: 20:00etan, Kultura Aretoan.

EKINTZAREN IRAUPENA: ordu eta erdi.

Partaideen artean etxean ura aurrezteko oinarrizko gailuak banatuko dira.

